

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Ustezko yetia ahuntza zen

AURTENGO IRAILEAN BBCko kazetari batek Indiako Garo-ko baso trinkoan topatutako bi ile igorri zituen Oxford-eko Historia Naturaleko museora, "mande barung" edo "basoetako gizakia"renak izango zirelakoan. Ikerlariak egindako lehen probetan aipatu ileak primate batenak ez zirela ikusi zuten, eta horrek area-gotu egin zuen ileen jatorriaren inguruko kezka.

Horrela, ADNaren erauzketari ekin zioten eta Cardiff zein Oxford-eko hainbat laborategitara bidali zituzten laginak. Bi laborategietako emaitzek gauza bera adierazi zuten: ileak ez ziren ez yeti ezta inolako primatena, baizik eta goral izeneko ahuntz espezie batenak. Goral, edo *Naemorhedus goral*, Himalaian bizi den ahuntz espeziea da, eta ikerketa honen eraginez, bederen goral bizi den eremuaz gauza gehiago dakigu. Yetiak misterio izaten segitu beharko du.



Goral izeneko ahuntz espeziearen arrastoek zalantza sortu zieten, hasieran, ikerlariari.

Erregaiak hondakin begetaletatik

VIRENT ENERGY SYSTEMS-EKO (Wisconsin, AEB) Randy Cortright-ek eta haren lankideek nekazaritza hondakinetatik ateratako azukrea gasolina, diesel eta hainbat produktu kimiko bihurtzeko bidea asmatu dute.

Hori lortzeko prozesu kimikoa konplexua da, baina labur esanda haxe gertatzen da: hainbat katalizatzailearen aurrean, azukretan aberatsa den ur-soluzio baten molekula organikoak banatu eta birkonbinatu egiten dira, petroliotik erauzten diren substantzien antzekoak sortuz.

Substantzia horiek biomasaren energiaren %95 bereganatzen dute, baina masaren %40 baino ez, eta horregatik oso erraza da horietatik gasolina mota desberdinak erauztea. Gainera, badago oso faktore garrantzitsua: gasolinaren erauzketa egiteko garaian ez da kanpotik hidrogenoa gehitu behar; biomasak duena nahikoa da.

Egia da erregai berri horiek, erretzean, karbono dioxidoa itzuliko dutela atmosferara eta hortaz, berotegi efektua gutxitzen ez dutela gehiegi lagunduko, baina hondakinen birziklapenetatik etorriko direnez, balantze orokorra ez da hain negatiboa izango.

1.800 urteko historia estalagmitan gordeta

Txinako leize batean 190. urte inguruan sortutako estalagmita topatu dute, eta horri esker montzoiek urteetan zehar izandako bilakaera eza-gutzeko aukera izango da. <http://ttiki.com/1301>

Antigorputzak nola sortzen diren hobeto dakigu orain

Frantziar ikerlari talde batek aurkitu duenez, hesteetako hormetan dauden zelula batzuek, peptido bat atzema-tean, antigorputzak sortzeko agindua bidaltzen diote beste zelula batzuei. Behin sistema hori ezagututa, medikuntza-ko aplikazio ugarritan erabili ahal izango da. <http://ttiki.com/1302>

Planeta biren arteko talkaren arrastoak aztertzen ari dira

Gure Lurraren antzekoak ziren eta gure eguzkiaren antzeko izar baten inguruan biratzen ari ziren bi planetak talka egin dute, eta astronomoak orain arte ikusi gabeko gertaera horren datuak biltzen ari dira. Lurrak eta Artizarrak elkarrekin talka egin izan balute bezala izan da, esan dutenez.

www.amazings.com/ciencia/noticias/071108a.html

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16